

«Orixe» eta Santa Teresa

Nor bi daukazuz begi aurrean, gizaki ta emaki; jakintsu ta aundi biak. «Orixe» eusko-endako, ta Teresa Gaztela Zarrreko. Oresa'n jaioa Orixe eta Avila'koa Teresa. Literatura esparruan, besteak beste —eta emen onez arduratzen gara—, biak eder eta gaillenduak: Orixe euskeraz eta Teresa gaztelerez. Eta —nok esango!— biak antzeko.

Esan dagigun asi-asieratik: Itz-urren edo joskeraz kideko doguz biak. Auxe da Azkue eta Orixe'ren ustea. Orixe'k, «Musika ixilla» deritxon idaztiari egiñiko sarreran, bardinketa bat eiotzen dau Leon'go Luis Aitaren eta Gurutzeko Juan Deunaren artean, euron itz-urrena aztertuz ain zuzen. «Gezurra dirudina —idazten dausku—, bai izketa askatuan, bai neurtuan, Luis'ek alde aundia kentzen dio Ibane'ri itz-urrenean. Gezurra dirudila diñot, Gaztela Zaarrekoek itz-urren ohea baitute Berrikoek baiño, eta Ibane —Jon Gurutzekoa— Gaztela Zaarrekoa zan, eta Luis Berrikoa. Norbaitek esan ba'lezait latin antzerago joten duela Luis'ek, areago esanen diot Jesusen Teresa'k, eta ez latin kutsuz; bai, aurki, euskal-kutsez. Gure Azkue aundiak esan oi zuen Santa Teresa, bere itz-urrenez, Arrigorriaga'ko alaba zirudiela noizik beñean» (22 orr.).

Orixe'k sarri ta sakonki irakurri ebazan Teresa'ren ida-

ziak, eta askotan notak artzeko luma ta papera aukeran eukazalarik. Gaztelar idazle batzuen lanak eta bardiñean ipiñi ta alkar jorik, joskerari begira nunbait, au atera ta idatzi euskun: «Bi izkelgi artzen dudaz nik Espaiñian, itz-urrenari dagokionez: C ta CN (Gaztela Zaar-Berrietakoa). Bearbada, Erroma'ko gudariak itz-urren berbera ekarri zuten. Zertatik bitaratze ori? Teresa'k euneko ogeita amabost aldiz, batzutan berrogei ere bai, euskeraz itz-urrena darabil; Luis'ek geie-nez, ogeita amar aldiz. Menendez Valdes'ek eta Cervantes'ek askoz itz-urren berriagoa dute. Cervantes'ek eta gure egu-notako Perez de Ayala'k berdintsu: euneko amabostetan, goiena jota. *Don Juan Manuel* irakurri nendun euneko ainbata ateratzearren, baiña gaur gaurko itz-urrena du ark ere, nik irakurri argitaraldia gaurkoratua ez baldin ba'zgon, beintzat. Gaztela Zaarreko itz-urrena, batez ere *Refranero Primitivo*'koa (ikus Menéndez Valdés, *Diálogos de la Lengua*), euskeratik urbillago daukazu, eta M. Valdes'ek diñona, atxoak ardatzean ari zirala asmatua baldin ba'da, ezin izan latin ikasi zutelako. Ortaz, Bureba'n, orduko Euskalerrian, erderaz itzezin asi ziralako ote? Euskal itz-urrena latiña baiña latiñago baita» (*Idem*).

Onen esperientzi pizkat ba-dot nik. Santa Teresa'ren il zanetiko laugarren eun-urtea aurten ospatuko zala-ta, jazokun ori bear aiñako aunditasunez nik be —euskaldunok esan nai dot— ospatu nengian, aren libururik bikaiñena euskerara biurtzea otu jatan; asi ta amaitu laster baten egin nebala autortzeak ez dau, ez, artobero usaiñik. Itzulpen edo itzultze ori errez egin jatan, gaiñera; gogoz dagiguna, izan be, errez egiten, eta niri be orixe, igarri barik ipiñi neban gaillurrean adarra, etxegille batek lez zabu-zabuka aizetan.

Liburua, ots, «Egoitzak» kaleratu nebanean, ainbat eta ainbat zorionka etorri jatazan, angoak eta emengoak, idatzi oso ederra burutu nebala esanaz, mamiña ta azala guztiz ederrak zirala esanaz. Guzuzraz ba-ebiltzan ni ez naz errudun. Gerora, orrela ete dan ikusteko edo, askotan irakurri ditut, eta ausnartu, ortan datozen kapituluetakoi gai eta gauza barrukoi, sakon eta jakingarriak, eta beti irakurtearen eder bikaiñak urmen eta buruko zoro izten nau.

Zuk be, irakurle, ar egizu, gozotasun orren jabe egin zaiten.

zan, ezkerraldera, au idazterakoan noski, daukadan «Egoitzak» liburutik aldaturiko zatitxo au, 190'garren orrialdean edegi dautzut liburua. Santa Teresa euki oi ebazan ikuskariak eta olako gauzak zirala-ta, askoten joten eban kontseju billa gizon jakitunengana; onek au esan eroatson eta besteak bestea. Bein onako batek, ikusi irudi jakon Kristori ixeka egiteko esan eutson. Teresa'k ezin olakorik jasan. Eta onela idazten dauSKU, beste batek esan eutsona aintzat arturik: «Oso gaizki iruditzen zitzaion jakintsu ari, batzuk, ikuskari aietaz eman oi zituzten kontsejuak, olakoren ikustean ixekaz adarrak ipiñi, adibidez. Ark esaten zuen, ikusten dugun lekuan ikusten dugula gure Erregearen irudia margoztuta, begiramen aundiz artu bear dugula. Eta errazoia du ikusten dudanez. Emen berton ere olaxe gerta oi da-ta; gure artean ere, beste bat maite duen pertsona batek ba'leki, ark bere argazkiari olako iraiñiak egin dizkiola, ez luke ori ontzat artuko. Ez ote da, ba, bidezkoago guk beti ta nun-nai begiramen aundiaz geure Errege aundiaren gurutzea naiz edozein iduri artu ta erabiltea?» (Egoitzak, IX Idazpuru, 13).

Ba-dau, bai, Teresa'k itz-urren, joskera edo sintaxisari begira olako antz apartekoa, beste gaztelar idazle batzuk ez bezelakoa. Europa'ko izkuntza ezagunetatik gerkerak eta doitzarak —atzizki eta itz-alkartzean atan be— dabe antz eta kidetasunik geien; laterak baiño naiko geiago. Santa Teresa, orraititiño, ez-jakiña ez bazan be, etzan izkuntza ikasten jarduna. Berezkoa, etxean ikasia, errikoia zan arek erabillen izkera eta idazkera. Nik be, Orixe'rena gogora ekarriz, onela amaitu bear: «Bureba'tik arantz egindakoa bear bada?».

«Orixe»-ren lana

Mistika zale genduan Orixe. Berrogei urtez beintzat mistika liburu artean zanga egiñik ibillia. Loiola'ko Iñaki Deunaren barne-lanak eta onen ingurukoenak ezeze, karmendarrenak be, Santa Teresa eta Gurutzeko Jon deunarenak batez be, astiz eta sakon azertuak eukazan. Oso atsegin jakon Loiola-tarraren irakatsia, baiña ez gitxiago karmeldar irakasle aundi biona. Orixe-k, gaiñera, Maixu gailen oneik erakutsiaz jabetu

eta gaiez idatzi bakarrik ez euskun egin; baita berak, iru Santuok egin eben lez, jainkozko dotriña mistiku ori sakon bizi-
tzeraiaño be eldu jakun, Santa Teresa'k maiz aitutzen ditun
ikutu gozoak iñoiz sentitzeraiaño eldu be.

Orixe'k naikoa idatzi eban mistika auziari ekiñez. 1952'ga-
rren urterantza Amerikan zear egin euskun joan-etorrian, an
Kito'n eta, bere arrebakin egon ondoren, «Kito'n arrebarekin»
titulupean lan zabal eta oso bikaiña itxi euskun «Euzko-Go-
goa» aldizkarian, mistika gaietaz ain zuzen. Lan ontan autor-
kizun politak dagiz, baita mistika eskoletako askori zartada
ederrak emon be, egon-zale ta *Quietistaen* auzia jorrazera-
koan, esate baterako.

Oliamendi, Golgota, Tabor, Horeb eta Karmelgaindik zear
ibilli dogu Orixe bere idurimen azkarrez. «Zergatik Horeb eta
Karmel-gain?» itandu eutson arrebeak. Eta Orixe'k onela:
«Horeb'en asi bai nintzan Jainkoa zerbait sumatzen, Karmel-
mendi, barriz, otoitzean aurrera ari nintzala neri gerta-gauze-
taz oroipen atsegiñak baititut».

Orixe, izan be, asko sufridua izan zan. Baita pozaldiak
artua be. Jesus'en Lagundian egin eban bere eliz-karrera; iza-
tez minbera zan, eta sentikor. Gisa ontako gizakiak asko jasan
bearra izaten dabe: Lagunditik ez ete eben bota? Ori da esaten
dana. Gerra-aldian giltzape egona dogu, eta mendiz mendi
mugaz bestealdera iges egiña. Naiko Golgota ez al da? Era
berean izan zituan atsegiñak eta pozaldiak: «Euskaldunak»,
bere poema bikaiña, argitara emona ikusi ebanean; «Egunero-
ko Meza-bezperak» amaitu ebanean; Kiton arrebarekin egon
zanean; Dabid'en «Salmuak», «Jainkoaren Billa» eta antzeko
lanez euskal literatura panpoxtu ebanean...

Zio askogatik gorriak ikusi zituan Orixe'k, esan dogunez;
eta neke ta samin artean araztu dan arimeka gertuago daukagu
mistika gaietaz itz-egiteko, oiñazeak garbitu oi bait ditu
Jainko baitan murgiltzeko diran arimak. Orrela ikusten dau
Teresa, miñetan sarri, pozetan gitxi. Dotriña au, beraz, atsegin
jako, Teresa'ren irakatsia. Eta auxe azaltzen dauku Orixe'k
aitatu ditugun liburu edo idatzi biotan: «Kito'n arrebarekin»
eta «Jainkoaren Billa»-n. Emen, urrats aundiz, liburu orreitan

itxi euskun zerbait, mistika gaietazkoa, adierazoten saiatuko gara. Eta berberaren itzakaz al baitanez.

Teresa-ren 7 Egoitzak

Santa Teresa'k gaztelu bat dakarsku aurrera irudiz. Kristo, Gure Jauna dago gaztelu orren erdi-lekuan. Zazpi egoitza edo egonleku daukazuz erdi-leku ortara eldu arretik; apurka apurka ibilliz zoaz erdirantza, Kristo argi-dirdaika dagon lekura eltzeko. Sei egonleku igaro ta zazpigarrenean or zagoz Kristo'gaz alkarturik. Arimeak orra danean Kristo'ren arnasa ta ao-aizea sumatzen ditu, Aren izkutuarekin batera; oso eraberritua ta jainkotua geratzen da.

Egoitza batetik bestera doala, gauza arrigarriak jazoten jakoz arimeari. Laugarren egonlekurarte ez da olako zer aundirik, baiña bai emendik aurrera. «Atsegiñak» esaten dautsen mesedeak guk geurez ezin ekarriak dira, Jainkoagandikoak doguzalako. Orixe'k onela: «Beraz, adimenaren atsegiñ edo gusto bezelako ori sumatzen omen da egonleku ontan (laugarrenean), zentzuetara ere zerbait zabaltzen dala. Esan diteke beste egonlekuetan ere sartzen dala nolabait ere; baiña Teresa'k emen ipintzen du, batez ere, atsegiñ edo gusto ori» (*Jainkoaren Billa*, 93 or.).

Ba-dau gora pizkat atsegiñ ori nundik datorren jakiteak be, egoitza ontara, konturatu ezta be, arima askotxo eltzen diralako. Orixe'k itaun: «Nundik dator? —Jaungoikoa urbil sumatzetik, alboan, ondoan: *junto, cabe*, geroago ikusiko degunetz. Orrela esaten digu (Teresa'k) askotan. Bosgarren egonlekuan gertazen omen da Jainkoa begiz ikusten bezelako ori, *unión* esaten dio, ta zazpigarrenean gertatzen omen da alkarbasun oso ta betea» (*Idem*, 94 or.).

Bostgarrenera eltzean, au diño: «Emen, bai, autorerik geienak diotenez, Jainko-ikuste ori gertatzen omen da. Baña, nun dago bosgarren eta seigarrenaren arteko muga?». Seigarrenean, barriz, ikustez eta gustatzez gaiñera, «egonleku ontan —diño— Jainkoaren ikutua sumatzen omen da. Onela Teresa'k, G. Donibane'k eta autorerik geienak... Bi Santu karmel-

darrak «ikutuak» esaten diete, ta San Iñazio Loiola'koak «eragiñak» edo dardarakoak, nondik datozen dakigula ez dakigula. Askotan anima zintzoari, bestetara xorturik dagola edo konturatzen ez dala etorri oi zaizkio Santu karmeldarrak diotenez; eta San Iñazio'k, «guk artarako biderik eman gabe».

Orixe'k ondoren diñoan au be gogoan artzekoa da. Jainkoaz otoitz beroan diarduenai buruzkoa. «Otoitz bikaiñera iritxen diran kristauak, ba-liteke geienak ikutu ori sumatzea —izatea bai—; ta ba liteke ez sumatzea ere. Gure Aita Kardaberaz'en bizitzan au esaten da: Bi urte egon zala ikutu oietaz konturatu gabe, edo zer diran jakin gabe; baiñan animako gurasoak (autor-entzuleak), Santa Teresa'ren olako leku irakurtzeko agindu zionean, ordun ezagutu omen arek ere izan zitula (*Ardores de un Serafin*, 1, 115). Zenbat joan ote dira mundu ontatik bestera, otoitz bikaiñ ori daukate konturatu gabe! Ikutu legun auek seguruago dira beste gorputzaren korde-galtze, arri-aldi, zurrunaldi edo gogorraldi oiek baiño, Extasi guzurrezkoak ditezke asko ta asko» (*Jainkoaren Billa*, 95 orr.).

Zazpigarren egoitzara jorik, auzirik garaiena idazle askorentzat, auxe da: Zelan ezagutu ete daikegu berau, beste biengandik bereizteko eran? Eta Orixe'k onan: «Bi santu karmeldarrak, eta aiei jarraituz autorerik geienak, Irutasun Santua adimenaren begi-bezelakoei agertzetik ezagutzen dala diote». Eta autore batzuk aitatu ostean, eta Kempis'en esan au, «naiago det otoitz aundiaren jabe izan, otoitza zer dan esaten jakin baiño», idatzirik onela jarraitzen dau: «Nik oraiñarte arkitu dedan sifialerik seguruena, Santa Teresa'k ematen du bere zazpigarren egonleketan: pake aundi bat, naigabeen artean ere. Orobat esaten du Gurutzeko Donibane'k: «naigaberik aundiena etorri ta ere, otoitzean barru-barruko pake ori sumatzen ba'dezu, uste nuke otoitz aundi ortara iritxi zerala» (*Idem*, 96 orr.).

Gaztelu onen egoitzetan zear arimeak dagian ibillaldi orretan, ezin daikegu errez jakin noiz dagoan onako lekuan eta noiz alakoan. Gurutzeko Joan deunak dirauskunez, ba, emen ez dago «aurrenik, ez urrenik». Jainkoak nai legez jazonen diran gauzak dira eta guk zertarako Ari legeak ipiñi?

«Gertakizun oiek —diño Orixe'k— otoitz bikaiñaren inguruan dabilta, baiñan otoitz bikaiña beti au da: Berekin gauzkan Jainkoagana ernai ta biotzez egotea». Fedea argi, maitasuna bero, ta apaltasun aunditan.

Kristo, Jainko-Gizona itxuratzea

Etxe bat jaso naiz kondaira liburu bat osotzea nai dogunean, gaiak pillatzen ditugu lenen. Otoitzera goazanean be zer asko bear doguz, lenengotan batez be, otoitzari eskatzen dauskunez ekiteko. Buruan lenengo tokia emon bear dautsagu zerbaiti edo norbaiti; gai bat artu bear da, irudituz ekarri eta buruan irauli. Zelan? Orixe'k: «Egi soil-soil bat baldin ba'da, ez du irudiketan ari izan bearrik. Gertaera, berriz, naiz gertatua, naiz gertatzekoa, nolabait asmatuko»... Gertatua baldin ba'da, asterako, Jesus'en jaiotza, eriotza, piztuera, tokiak ikusi ez ba ditugu ere, saiatzen gera alako irudipen illun, lañotsu bat asmatzen... Asmaketarako ba-dira irudimena yayoa ez dutenak. Batzuentzat, amabi Apostolu ta Jesukristo maiean asmatzea, geiegi izango da. Beraz, urbil-du ditezela Jaunagana, San Joan'en ondo xamarrean jartzen dirala. Teresa'k berak ola aitortzen du: etzuela irudimena batere yayoa gauzak iruditara ekartzeko. Argatik dio, gure Jauna bakarrago zegon tokietan iruditara ekartzea gustatzen zitzaiola».

Egia esan, gogartaldi gozatsu bat eukiteko, Kristo, bere bizitzan, eriotzan eta biztueran zelan edo alan asmatu bearra daukagu, irudipen biziz ba-leiteke ezetz, baiña bai zerbait illun eta lañotsu. «Bitara egin oi degu gauzak gertarazte ori —diño Orixe'k—; bata, gertatuak, jazo diran gauzak, aurrera buruz ekarriaz, edo gu orduko gertaera aietara buruz aldatuz. Ba-da beste bide bat ere, gertaera ez-baiña, gertaera antzekoa ekartzea. Jainko soilla gogoan irauli-gai degunean, ez degu aurrera ekartzen, aurrean bait daukagu; baiñan, ekarriko ba'genu bezela, ez baikaude beti ernai aurrean daukagula».

Era bi oneitaz gaiñera, beste bat aitatzen dau Orixe'k. Ona: «Iruigarren gertarazte bat asmatu diteke, bi oiek alkarri erantsita. Jesukristo'ren Gizatasuna gogora ekarri nai

degunean, naiz Belen'en, naiz Nazaret'en, naiz Gurutzean, burura ekartzen degun ori irudipen utsa da, ta ez du Jainkotasunik bere barruan. Gogora-ekartze ori utsa, ez da otoitza; baiña, ba-dakigu beste aldera, Jainko-Gizonaren bigarren Persona barruan daukagula lendik, au da, ba-dakigu iru Personak anima zintzoagan egotez daudela graziaren bidez. Ordez, bi aurrera-ekartze oiek alkarri erantsi deizkiogun, eta ber daukagu otoitza jatorra. Jainkotasuna, gero barruan geneukana ta daukaguna, beiñena edo printzipalena, ta Gizatasuna, guk buruz ekarria, biak alkarrengandik bakantzen ez ditugula. Orrela, ernai ta biotzez egon ezkerro, ez al gaude otoitzean? Teresa Jesus'enak ori egiten zuela nago» (*Jainkoaren Billa*, 180 orr.).

Kristoren Gizatasuna iruditu ta aurrean erabilte onek ba'dau bere garrantzia, oni buruz mistika gaietan jakitun diranak ainbat istillu ta buru-auste sortu bait dabe gizaldiak zear. Jaunaren Gizatasuna aurrean eukiteak, otoitzean, laimntza aundia ekarten eutson Teresa'ri. Gure begiak ezin izan oi dabe eguzkia aurrez-aurre ikusi, baiña «odei axial» batek lagunduta, askoz be errezago jaku ikuste ori.

Orixe'k au be, otoizlari aundi zan-eta, irudikizun apaiñez azalten dausku. Aurrean daukagu Kristoren Gizatasuna, baiña ikusi barik zelan antz-emon eta iruditu aren gorputza, arpegi, buru, esku ta abarrez? Inguruko gizonetatik eredu ari-tuta? «Jesukristo'rena ere ez ain zail, diño, illuntsuago edo lañotsuago edo itzaltsuago, zati bakoitza bat-banatzen asi gabe... Alperrik ibilliko gera oien itxura bakoizten edo bat-banatzen, ez baitakigu nola diran; baiña, naiko izaten degu irudi lañotsu, illuntsu, erabateko bat, eta otoitzean ez degu besterik geiago billatu bear, Jesukristo gure Jauna iruditara nai degunean». Eta Santa Teresa'k bere *Bizitzan*: «Itsu dagoanak lez ikusten neban nik, edo illunetan norbaitegaz berbaz dagoanak lez. Sumatzen dau dalako aregaz diarduala, seguru daki an daukala, baiña ez du ikusten» (2,6).

Arima otoizlariak, otoitzari jardutean, Kristo'ren Gizatasuna zatika aurrean iruditu nairik ez dauka zetan indar egiñik. Orixe'k: «Jesukristo adimenean ikuskakariz agertu omen zaien anima doatsu oiek ere, ez dute ikusten orrela, ba-

koizka. Teresa aurretik dala, ikusten duten guziek au diote: begia edo beste zerbait bakoizka ta garbi ikusi naiean asten ba'dira, itzali egiten zaiela guzia». Jainko soil-soilla ikusi nai izatean be, bardin jazoten da, Aren bikaintasunak bakoizka aztertu gura izan ezkeru, len eukan erabateko begiratua galdu egiten dau arimeak.

Orixe'k azkenik, onan otsegiten dau: «Jesukristo'ren aurpegia! Bekoki zabal eta yabal edo tranquil ua, begi otzan aiek, ezpain ezti-jario aiek, eskuak, Teresa'k ikusi omen zintun eskulañotsu aiek... zeruan ikusiko ditugu, Jainkoak onez. Gizatasuna gogoratzean, gogora dezagun batez ere, Beraren anima, Jainkoaren urrengo zer-danik bikañena» (*Jainkoaren Billa*, 177 orr.).

Atsegiñak eta gozotasunak

Otoitzak berez ba-ditu bere matazak, bere nekeak eta pozaldiak. Ebanjelioak gau ta egun otoitzari ekiteko diñoskula be, beti ez jaku erreza: aoz beti errezatzen jardutea, egi bat artuz berau gogoz iraultzen ibiltea ez da gauza samurra, argalak bait gara. Gogartea deritxogunera jo ezkeru, barriz, nekezago jaku, leku egokia, ordu ona ta gogo beroa bearrrezko doguz ortarako ta. Karmeldarrok koruan eralgi oi doguz ordu bi gogarte edo meditaziñoari emonda, goizean bat eta arrastian bestea. Santa Teresa'ren eguncetatik dator-kigun oitura dogu au, eta ortan gagoz gaur be. Uneroko otoitz-agindua bete al izateko, fedez, itxaropenez eta maitasunez Jainkoaren aurrean ibiltea lakorik ez dago. Orrek indartzen gaitu eta bultz-eragiten Jainkozko artu-emonean eten barik jarraitzen.

Otoitz-era guztietan, baiña gogo-ausnar eta gogoraldietan —koruan daukaguzanetan naiz ibar soñutsu zear goazalarik— batez be, benetako poz-atsegiñak izan oi dauskuz otoizlariak, munduzaleen poz-irrits lurkoiak baiño askoz barruko ta iraunkorrakoak izan be. Ni, noizik bein, egiazko olerkari bat lagun, aizea artzen urten oi naz emengo errekondu zoragarri bate-tik zear. Dala dalakoa erabilten dogun autua, ederrari buruzkoa geienbat, nire laguna oiñ-eragiña eztitu ta iñoiz auzoko

munan ezarririk, geratzen jat erdi-birloratua; biotza urtzen ei jako ainbesteko ederrez. Eta biok apatz jarten gara bedarraren gainean.

Laugarren egoitzean Teresa'k naiko argi adierazten dau zer diran otoitz-aldiko poz eta atsegiñak. Antzirudi bat jarten dausku, obeto ulert dagigun. Urarena numbait. Obeto aitzeko, diño berak, egin dagigun iturri bi ikusten doguzala, urez beteten dira aska bigaz. Aska biok beteten dira uraz, baiña ez era bardiñean. Ur bata urriñetik dator, eskuz egifiko erreten askoren bitartez, eta zaratea be atera oi dau; bestea sorburutik dator, sorburuan bertan artua da, eta bat bere zaratarik atera barik doa. Onetan dago aldeá: erretenez datorren uraren antzekoak dira, nik uste, otoitz-jardunetik ateraten dirala esan dodan pozaldiak, geuk gogapenen bidez, geure jardunez eta izakien laguntzaz, adimena nekatuz, lor-uak. Bestea, barriz, Jainkoagandik da, Aren aunditasunak, nai dauanean, geure barnetik jalgitako ura lez, bake, atsenden eta gozotasun aunditan emona. Poz-atsegiñok, amaitzen dau Teresa'k, lenengotan ezta be, gero biotz osoa asetzen dabe: «ur au zabalduaz doa egoitz eta aalmen guztietara, gorputzeraíño eldurik».

Atsegin edo gustoak dirala-ta, Teresa'k ez eban beti irakatsi bardiña emon. Bere Bizitzan eta laugarren egonlekuan damoana ez dira bardin-bardiñak. Berbera konturatu zan, eta lenengoa idatzi ebanetik amairu urte joan dirala-ta, esan euskun: «Ba-leiteke nik ao baten miin bi izatea», au da, an gauza bat eta emen beste bat esatea. Bizitzan diño gusto orrein iturria, Jainkoa ur-ur sumatzea dala, eta egoitzetan Jainkoa barren-barrendik sortzen lez sumatzea dala, lurrean sortu dan iturri batetik lez. Eta Orixe'k: «Etziran, ez, alperrik igaro amairu edo amalau urte, Bizitza idatzi zuanetik Egonlekuetara; ordurako bikaindurik baitzegon, eta gauza bera, goragotik ikusten zuan. Dakigunez, Teresa'k laugarren Egonlekuetan ipintzen du otoitz bikañaren asierako muga». Eta autoreak or dabiltz buru-muiñak kiskali bearrean Jainko-ikuste (*contemplatio*) ori otoitz bikañarekin bardintzen dan ala ez, jakin nairik. Orixe Santa Teresa'gaz geratzen da, ots, otoitz bikaíña laugarren egoitzetan asten dalakoan.

Gauza bi ez dagoz emen, baiña arimeak bikainduz eta obetuz doala, era diferentean ikusia bai. Ona zatitxo bi oneik, bata *Bizitzatik* arturik eta bestea *Onbide'tik*. «Jaungoiko aundi onek —diño *Bizitzan*— au nai dau: jakin daijala arimeak ain daukala beragandik urre, ez bait dau geiago mandatari bearrik; Berak itzegin nai dautso, eta ez oiuka; ain urre bait dauka, nunbait, ezpanak mobidu orduko ulertzen dautso (14,4). Eta *Onbidean*: «Ain dago pozik iturri ondoan, edan barik be, aseta aurkitzen da» (31,3).

Arimea, gaztelu barruan, esaterako, aurrerago ta argi geiago ta biziagoz jabetzen da. Jainkoa leen kanpo lez sumatzen, gazteluko leen-egoitzetan ebillelarik, baiña orain barruan lez. «Bi grazi oiek, edo bakarra bi aldetara ikuste ori —diño Orixe'k—, anima bikañagotzetik zetorren, Teresa'k ederki asmatzen duna. Bi grazi oiek bat ziran Jainkoaren aldetik, baiña bixiko edo diferente agertzen ziran, anima bikaindu-ala».

Ona Teresa'k, uraren idurikizunari jarraituz, esaten daukun au be: «Uraska guztiz leun beteten da; Jainko onak jara egin dau iturbegia eta indartsu dator ura, gorantza jasorik gure arimearen ontzixka». Ba-dau beste antz-iduri bat be, oso atsegiña, su-ontziarena. «Su-ontzi ontan —diño—, au da, Jainkoagan, txinpartaren bat saltatzen ete zan nengoan, arima joaz, konturatzeko moduan; baiña etzan naikoa arimea erreteko; eta su ori ain da atsegiña, naigabez geldierazten zaitu, ta ikutzean, ondoren au dau» (*Egoitzak*, 6,5,3).

Ikutuak eta ikuskariak

Jainkoak arimari, osorik berea egin danean, maitale bi lez alkar-autu gozotan dabilzala batez be, olako gozotasun beren-berengizkoak, ikutu samurrak eta goi-ikuskari miragarrizkoak egin eta emoten, ez da eskulabur. Gaiñezkaldiak izan oi ditu arimeak, goi-graziok artuz; batzutan, arimeak berak ortarako bide emonik, otoitzean samur jardunaz edo-ta gauza egoki ta onak gogoan erabilliaz, eta beste batzutan, arimea «oso xorturik edo distraiturik bestetara dagola, lotan

dagoala ere bai». Deabruak be egiten ditu alegiñak olako batzuk asmatzen, baiña ez dira bardiñak.

Arimeak eta Jainkoak alkarrekin dabezan autu ta ar-emonok, maitale bik dabezanen antzekoak dira, Teresa'k diñoskunez, alkar-ikuste, bezuza ta esku-erakutsiak trukatzean, eta olakoetan. Gero ezkontzako ezteguak aitatzen dauskuz Bostgarren Egoitzetan. «Sarri entzuna dozue —diñotse bere alabai— Jainkoa arimarekin ezkontzen dala, gogozko ezkontzaz. Lurkoia da alderakizun au, ez da egokia, baiña ez dot obarik aurkitzen; alan be emen ez da Jainkozkoa ez dan gauzarik. Atsegin oneik lurrekoetatik milla legua bidera dagoz; zeru-eztegu oneitan jazoten dana osorik garbitasun aunditan jazoten da, eta zein mee ta legun diran gauza orreik ez dago esaterik be» (*Egoitzak*, 4 idazpurua, 3 zenbakian).

Jainkoaren ikutua, zauria da. Jaunak sarri, otoitzari emondako arimea, izar zoro batek lez, edo trumoi batek, otsik atera gabe, astin-azten dau. Dei bat lez da, uste barik datorkiguna. Lenengotan ikara emoten dau, baiña miñik ez; gero, bai, gero min guztiz gozo bat sumatzen dau arimeak; zauri bat dau barnean, nok zauritu dauan jakin ezta be. Baiña, «alako gauza gozoa dan ezkeru, ez leuke bein be osatu nai miñ ortatik». Gorago aitatu dogun txiñar batek dogu Jauna, eta Teresa'k uste dau su ontatik txiñar batek salto egin dauala eta arimea ikutu, ikutzean egin dauan urratzeaz arimea min gozotan eta garraxika itxirik.

Olako zaurietatik osatzeko edo, Kristo bera agertzen jakoko. Zelan? Ikuskariz. Ez dau, egia csan, aragi-begiz ikusten, ezta irudi-begiz, baiña bai adimen-begiz. Eta Teresa'k: «Oni adimenaren ikuskaria esaten dautsoe, nik ez dakit zergaitik». Ikuskari onek egun asko irauten dau, eta laguntasun aundia jako arimeari gogoramena Kristo'gan eukiteko. Begiz, aragi-begiz ikusi ez arren, ba-daki, ziur daki Kristo dana. Egoitzetan barrurago ta ikuskari gitxiago dala dirausku. Adimenak baiño biotzak lan geiago dagi azken egoitzetan, zazpigarrenera eldu ondoren batez be. Biotzak ikustea baiño gurago dau maitatzea.

Otoitzaren bikaintasuna

Otoitza, arazo ederra nunbait. Ortarako naikoa era erakusten dauskuz Santa Teresa'k, bere liburu ugarietan. Arimeak, otoitz zaletuz bat, bere barrura begiratu bear dau, eta sartu, kirikiñoak norbait ikusi edo norbaitek jo ezkerro, egiten dauan lez. Gure gogoa kemen guztiaz bere barruan sartzen da, Jainkoaz artu-emon gozotan egon al izateko. Eta Jaunak berak erakusten dautso zelan otoitzean jardun eta gaiñerako zeaztasunak, jainkozko bizitzari dagokiozanak ain zuzen.

Eta auxe da asiera, otoitz bikaiñera (kontenplaziñora) eltzeko lenengo mailla. Teresa'k orixegaitik diñotse bere alabai: «Alegindu zaitzeze, bakarrik zagozen ezkerro, lagun bat ondoan artzen». Barruratze otoitza deritxo oni. Gero datoz besteak, atsedenezkoa ta abar, Teresa'k bere idaz-lanetan, *Bizitzan, Onbidean* eta *Egoitzetan* batez be, maisuki aztertu ta erakusten dauskuzanak.

Idazlanok —baita maisuki— aztertu euskuzan Orixe'k be. Emen ak eta guk aztertu ta ikasietatik, mistika irakatsiai buruz nunbait, pitintxo bat jarri dogu. Geiago ikasi opa dauanak ba-ditu, euskeraz be, liburu ederrak. Teresarenak: *Onbidea*, Bilbao, 1963; eta *Egoitzak*, Lizarra, 1981; eta Orixe'nak: *Kiton Arrebarekin* (Euzko-Gogoa, Guatemala, 1952), eta *Jainkoaren bila*, Bilbao, 1971.

Aita Onaindia

ARGAZKARI

Argazkariak

Argazkariak

Argazkariak

Argazkariak